

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

604

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 31koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena. Horren bidez, 10/2014-A zenbakiko prozedura laburtuan interesdun izan daitezkeenei dei egitea xedatzen da epaitegi horretan ager daitezen.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak errekerimendua egin du epaitegi horretan abiatutako 10/2014-A prozedura laburtuan interesdun diren hirugarrenei dei egiteko; hain zuzen, Segurtasuneko sailburuaren 2013ko martxoaren 25eko Aginduaren aurka, non Akordio Arautzailearen 52. artikuluan norberaren gauzetarako baimen-egunen orde emateko aurreikusitako diru-konpentsazioa erabakitzen baita.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan agindutakoa-ekin bat etorritz,

EBAZTEN DUT:

1.– Prozedura honetan interesdun izan daitezkeenei dei egitea 9 eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegian ager daitezen, egokitzat jotzen badute, 10/2014/A zenbakiko prozedura laburtuan beren bidezko interesak defendatzera.

2.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 31.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.